

## PR-A 65 "HARANENKO IBILBIDEA"

**Deskribapena:** Ibilbide honek haranaren luzetarako ardatza zeharkatzen du lursail-pistetan eta mendi-bideetan zehar, haraneko lau herrietatik pasatuz eta horien ondarea ezagutzera emanez. Halaber, mendiko bizikletaz egiteko ibilbide bikaina da.

**Ezaugarriak:** 16 km, 4 ordu oinez, desnibelak: 230 m – 250 m

**DONE BIKENDI HARANA.** Iturriko plaza. Herritik *Uraldeko Ama Birjinaren* kalean zehar irteten da, izen bereko XVI. mendeko ermita eta iturri zaharra atzean utzita. Bidegurutzera ailegatzean, eskuinera jo behar da ①. Handik 300 metrora, ezkerrean sortzen den bidea hartu behar da ②, alanbre-hesi baten parean dagoen erkamezti batean barneratuz. 300 metrora, pista bat elkartzen zaio eskuinetik bideari.

*Kazakona* ibarra igaro ondoren, basoko soilgune batean kokatutako bidegurutze batera ailegatzen da. Bertan, iturri-uraska bat dago. Aurrera segitu behar da, bide lau eta belartsu batetik ③.

Erkameztiaren gerizpean 400 metro inguru ibili eta gero, bidaztia alanbre-hesi batera heltzen da; hesia gurutzatzeko ataka eskuinean dago. Ondoren, bidea orbelak estaltzen du. Hortik eskuinerantz zeharka ibili behar da, soilgune txiki bat eta geroko zuhaiztia zeharkatuz. Gero, bidaztia beste zelai batera iritsiko da eta, orduan, basoan barneratzen den bidexka bat hartu behar du. Bide horrek zuhaixken artean aurrera jarraitzen du 300 metroan zehar lursail ireki batera heldu arte. Han, laharrek hesi bat osatzen dute, bidea hautsiz. 10 metro atzerago, eskuinaldean laharren artean hasten den bidexka bat hartu behar da. Zabortegi bat inguratuz zelaigune batera ailegatzen da. Puntu horretan, pista nagusia utzi eta eskuineko bidea hartu behar da ④. Bide hori hesi batekiko paralelo dago eta basoko ibarbide txiki batean barneratzen da.

Handik 50 metrora, bidaztiak ezkerreko bide batetik jo behar du, tarte luze batean zehar erkameztiaren gerizpean ibiliko delarik. Bide hori apurka-apurka igotzen doa, pagadia azaltzen hasten den bitartean. Igoera luze baten ondoren (700 metro inguru), bideak pista nagusi batekin bat egiten du. Ezkerrean, jaisteko bidea hasten da ⑤.

Handik gutxira, metalezko ate baten parean, lursail ireki batera ailegatzen da; ate hori zeharkatu eta zelaigune bat igaro behar da. Hortik aurrera, pista legarrezkoa da lehenengo,



*Txerrikorta basoan*

asfalto sendokoa gero eta, *Aldara* heltzerakoan, zementuzkoa. Aurrera jarraituz, beste bidegurutze batera ailegatzen da: kasu horretan, ekialdera jo behar da eskuinaldean hasten den lursail-pistatik ⑥. Lur zabal horretan zehar, haranaren hondoa eta soro ugari zeharkatzen ditu bidaztiak. Handik 800 metrora, bidea beste pista batekin elkartzen da, ezkerrean jo behar delarik ⑦. Ondoren, 200 metrora, beste bidegurutze bat dago urmael baten parean, eta eskuineko adarretik jo behar da ⑧. 250 metro inguru ibili eta gero, bidaztiak burdinazko ataka bat zeharkatu behar du eta, gutxira, beste bidegurutze bat aurkituko du. Kasu horretan, ezkerrean jo behar du, azienda-pabilioi baterantz. Beste urmael bat gainditu ondoren, nabearen aurrean dagoen zelaia zeharkatu behar da eta, gero, ezkerrean hostozaren artean hasten den bide harritsu hartu behar da ⑨.

Bide horrek baso misto eder-eder baten zati bat zeharkatzen du. 850 metro inguru ibili ondoren, beste bidegurutze batera ailegatzen da eta, aurrera jarraituz, lur irekira heltzen da. Bideak eskuinerako bihurtzen da dauka eta, gero, alanbre-hesi batekiko paralelo doa. Pagadi-erkameztiaren muga atzean utzita, bidea ipurudi batean barneratzen da. Bertatik, Bitigarra eta San Cristóbal mendiak begiztatzen dira.

500 metro ibili ondoren, hurrengo bidegurutzean eskuineko bidea hartu behar da, berriro ere basoan barneratzen den mendi-mazela hostotsu batean gora.



*Latxa ardia.*

la 400 metro dituen aldapa horren ondoren, pagadia nagusitzen hasten den puntuan, bidaztiak adi-adi egon behar du bidexka zuzena hartu nahi baldin badu, hots, ezkerrean bihurtzen baten parean sortzen den bidexka mehar bat, hesi baterantz doa ⑩. Hesi hori zapaldu batetik gurutz daiteke eta, ondoren, ezkerretara biratzen du bidexkak.

Txilar artetik iragaiten den bide mehar horretatik zeharkatzen da *Larradana* izeneko mendikate baten ardatza sakan baten ertzean. Aurrerago, bidea pagadi ireki batean barneratzen da, eta horretan zehar jaitsiz doa mendikatearen profilari jarraituz paisaia erkamezti nagusitzen den arte. Puntu horretan, bidea pista belartsu bihurtzen da, eta bizkor iparralderantz jaisten da. Laster, basoa zabaltzen da, Kontrasta hiribildua begiztatu ahal delarik.

Bidea *Perrazarra* muinoaren paretik iragaiten da. Ondoren, eskuinera biratzen du eta hesi batera ailegatzen da. Hura zeharkatuz, lur irekira irteten da. Handik 150 metrora, bidea legarrezko pista batekin elkartzen da, eskuinera jo behar delarik ⑪. Zubi xume bat igaro eta metalezko langa bat gurutzatu ondoren, asfaltozko pista batera ailegatzen da. Bideari jarraituz, bidaztiak Mendi izeneko muinoa igoko du eta horren gainean kokaturik dagoen *Kontrasta* Erdi Aroko hiribilduaren hirigune historikora helduko da.

Plaza eta errepidea zeharkatu ondoren, harresiaren antzinako atariaren arku gurutzatzen da, Jasokundearen parrokiako kanpandorrearen azpian dagoena. Hiribildutik irteteko, *San Salvador* kalea eta kale *Nagusia* igaro behar dira eta harresiko beste ataria atzean utzi. Hilerria gainditu eta gero, bidea utzi eta metalezko ataka bat gurutzatzen da. Ondoren, ezkerrean, San Cristóbal mendiaren oinean, sortzen den pista bat hartu eta mendebaldera jo behar da ⑫.

Bideak muino txiki bat igotzen du, nondik haran osoa begiztatzen den. Gero, bihurtzen da dago eta, segidan, bidea lautadarantz zuzentzen da (zati horretan, bidea hainbat aldiz adarkatzen da, lursailletara sartzeko bidexkak sortuz). Beti aurrera jarraituz, bidaztiak asfaltozko aldapa bat igo eta ezkerrean beste bide bat atzean utziko du.

Atatik 2 kilometro baino gehiagora Puerto Nuevo mendatera igotzen den pista bat elkartzen zaio bideari. Puntu horretan, eskuinean Uribarri-Haranako jatorrizko kokalekua ikusten da. Bidaztiak ezkerrean jo behar du ⑬ eta, 170 metro ibili ondoren, aurrera jarraitu behar du eskuinerako bide bat atzean utzita. Geroago, XII. mendearen amaierako Andra Mari ermita erromaniko ederra dago. Handik metro gutxira, Uribarri-Harana herrira ailegatzen da.

Herrirako sarbidean dagoen bidegurutzean eskuinera jo behar da. Ezkerreko kale-buru bat atzean utzita eta Biarra erreka gurutzatu ondoren, bidea legarrezko pista bihurtzen da berriro ere. Albo batean antzinako iturri-harraska-uraska kokaturik dago.




*Zaldiak San Cristóbal mendiko maldan*

Orduan, bideak iparraldera biratzen du. Handik 300 metrora bidegurutze bat dago, ezkerrean jo behar delarik ⑭. Pistak, soroen artetik iraganez, haranaren luzetarako ardatza gurutzatzen du. Bidaztiak etengabe zuzen jarraitu behar du, hainbat bidegurutze atzean utzi.

Handik 1.400 metrora, Aldaren bertikalean, mendira doan pista gurutzatu behar da ⑮ (pista hori Santa Teodosia ermitara joateko PR-A-66 ibilbidearen aukera da). Beste 770 metro ibili ondoren, ezkerreko pista bat gainditu behar da eta, 450 metro aurrerago, atzean uzten den hurrengo bidegurutze PR-A-66 ibilbideari dagokio ⑯.

Kilometro bateko zuzen luze batek zeharkatzen ditu haraneko lurrak Done Bikendiko hilerrira heldu arte. Hilerria Santa Teodosiako mendatera igotzen den asfaltozko bidearen parean dago ⑰.

Aurrera jarraituz gero, Done Bikendi Harana hiribildura ailegatzen da, ibilbidea hasi zen puntura, hain zuzen ere.



*Amezti.*

